ZARAUZKO UDALA

ZERBITZU EMAKIDA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA		PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS DE CONTRATO DE CONCESION
ZARAUZKO MODELO ARETOKO KUDEAKETA ETA USTIAKETA **2025IK200029**		**GESTIÓN Y EXPLOTACION DE LA SALA MODELO DE ZARAUTZ** **2025IK200029**
1.-KONTRATUAREN XEDEA. Kontratuaren xedea Modelo Aretoa kudeatu eta ustiatzea da, eta zehazki honakoa: a) Zinema egitaraua programatzea eta honen difusioa egitea, pelikulak proiektatzea, bestelako ekitaldiak programatu eta proiektatzea zuzenean edo aurrez grabatuta, esate baterako, operak, kontzertuak, kirola eta abar, eta ekitaldi horien difusioa. b) Modelo Aretoko zerbitzuak eskaintzea. Zarauzko Udalak antolatu edo baimentzen dituen ekitaldietan leihatilako arreta lanak egin eta jendea artatu eta aretoan bere lekuan kokatu; eta behar izanez gero, oinarrizko zerbitzu teknikoak eskaintzea, hala nola, aurkezpen, hitzaldi edota bestelako proiekzioetan laguntzeko Plegu hauetan zehaztutako baldintzen eta terminoen arabera, kontratuaren xedea betetzeko baldintza hauek jarraitu beharko dira: kontratuan, Plegu hauetan eta Baldintza Teknikoen Agirian adierazitakoak. Horiek guztiek kontratu izaera dute. Horiez gain, otsailaren 5eko 7/2019 Dekretuan (jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen du) ezarritakoa ere bete egin beharko da. **2. KONTRATUAREN EDUKIA** Modelo Aretoan zinema programatuko da urte osoan ostiraletik astelehenera bitartean, Zarauzko Udalaren kultur programazioa edo beste zenbait ekitaldi egiten direnean izan ezik.		**1. OBJETO DEL CONTRATO** El objeto del contrato es la gestión y explotación de la sala Modelo, y en concreto: a) La programación y difusión del programa de cine, la proyección de películas, la programación y proyección de otros eventos en vivo o pregrabados, tales como óperas, conciertos, deportes, etc, y la difusión de dichos eventos. b) La prestación de los servicios de la Sala Modelo. En los actos organizados o autorizados por el Ayuntamiento de Zarautz, atención en taquilla y atención al público y ubicación en sala; y ofrecer, en su caso, servicios técnicos básicos de apoyo a presentaciones, conferencias y otras proyecciones. De acuerdo con las condiciones y términos establecidos en los presentes pliegos, el cumplimiento del objeto del contrato se regirá por las condiciones que figuran en el contrato, en los presentes Pliegos y en el Pliego de Condiciones Técnicas. Todas ellas tienen carácter contractual. Además, será de aplicación lo establecido en el Decreto 7/2019, de 5 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento de desarrollo de la Ley de espectáculos públicos y actividades recreativas. **2.-CONTENIDO DEL CONTRATO** En la sala Modelo se programará cine durante todo el año de viernes a lunes, salvo cuando se celebre la programación cultural del Ayuntamiento de Zarautz u otros eventos.

Zarauzko Udalak astean zehar nahi adina jarduera (antzerkia, musika, dantza, hitzaldi, aurkezpen …) programatzeko aukera izango du. Era berean, zinema saioak bertan behera utziko dira hilean gehienez ere hiru ostiraletan eta hilean gehienez ere bi igandetan Udalaren programazioa eskaintzeko. Horrez gain, urte osoan zehar gehienez ere hiru asteburu osotan erabili ahal izango du aretoa Zarauzko Udalak, eta kasu horietan bertan behera geratuko da behar den beste zinema-saio.		El Ayuntamiento de Zarautz podrá programar a lo largo de la semana cuantas actividades (teatro, música, danza, conferencias, presentaciones...) desee. Asimismo, se suspenderán las sesiones de cine hasta un máximo de tres viernes al mes y un máximo de dos domingos al mes para ofrecer la programación del Ayuntamiento. A parte de esto, el Ayuntamiento de Zarautz podrá utilizar la sala durante un máximo de tres fines de semana completos durante todo el año, suspendiéndose en estos casos cuantas sesiones de cine sean necesarias.
Dena den, Modelo Aretoko instalazioak erabiltzeko lehentasuna Zarauzko Udalak izango du, eta Udalak aretoa behar badu Udalaren programazioa edo beste ekitaldiren bat antolatzeko (ostiraletik astelehenera), emakidadunak ezingo du aretoa erabili.		En todo caso, el uso preferente de las instalaciones de la Sala Modelo recaerá en el Ayuntamiento de Zarautz y si el Ayuntamiento lo necesita para organizar la programación del Ayuntamiento u otro evento (de viernes a lunes), la concesionaria no podrá utilizar la sala.
Programatutako egun eta jardueren berri emango zaio kontratuaren emakidadunari gutxienez 15 egun lehenago, eta orduan emakidadunak bertan behera utzi beharko du bere zinema programazioa.		Las fechas y actividades programadas serán comunicadas a la concesionaria del contrato con una antelación mínima de 15 días, momento en el que la concesionaria deberá cancelar su programación cinematográfica.
. Halabeharrez, 24 ordu baino epe laburragoan bertan behera utzi behar bada zine saio bat, kalte-ordain moduan 300 euro (gehi BEZ) jasoko ditu emakidadunak.		Si, por fuerza mayor, fuera necesario suspender una sesión de cine en un plazo inferior a 24 horas, la concesionaria percibirá en concepto de indemnización la cantidad de 300 euros (más IVA).
Emakidadunak bere gain hartuko du udalak erreserbatutako jardueretarako egin beharko dituen lanen kostua..		La concesionaria asumirá el coste de los trabajos que deberá realizar esta para las actividades reservadas por el Ayuntamiento.
Udalak kontratuaren koordinatzailea izendatuko du; prestazioa behar bezala burutzen dela begiratzeaz, koordinatzeaz eta zaintzeaz arduratuko da zuzenean, eta bera izango da, baita ere, Udalak programatutako jarduerak burutzearen erantzule zuzena.		El Ayuntamiento designará una persona coordinadora del contrato, que se encargará directamente de vigilar, coordinar y cuidar la correcta ejecución de la prestación y será responsable directo de la realización de las actividades programadas por el Ayuntamiento
Kontratua gauzatzen denetik kontatzen hasi eta 15 eguneko epean, Udalak emakidadunari jakinaraziko dio zein pertsona izendatu duen koordinatzaile.		En el plazo de 15 días desde la formalización del contrato, el Ayuntamiento comunicará la concesionaria la persona designada como coordinadora

UDALAK BAIMENDUTAKO BESTE EKITALDI BATZUK	OTROS EVENTOS AUTORIZADOS POR EL AYUNTAMIENTO
Era berean, badira entitate, erakunde edo enpresek antolatzen dituzten beste zenbait ekitaldi edo jarduera Udalak berariaz baimendu beharrekoak. Ahal dela Udalarentzat erreserbatutako egun eta ordutegietatik kanpo egin beharko dira.	Asimismo, existen otros eventos o actividades organizados por entidades, organismos o empresas que deben ser expresamente autorizados por el Ayuntamiento. Deberán realizarse preferentemente fuera de los días y horarios reservados al Ayuntamiento.
Kasu hauetan, jarduera aurrera eramateko arreta zerbitzuaren eta zerbitzu teknikoen beharra izanez gero, erakunde, enpresa edo elkarte antolatzaileak zerbitzu horien kostua zuzenean ordainduko dio emakidadunari.	En estos casos, cuando para el desarrollo de la actividad se requiera un servicio de atención y servicios técnicos, la entidad, empresa o asociación organizadora abonará directamente a la concesionaria el coste de dichos servicios.
Halaber, ekitaldia edo jarduera egiteko Modelo Aretoan ez dagoen instalazio edo materialik behar izanez gero, erakunde eskatzaileak ordaindu beharko du horien kostua.	Asimismo, en el caso de que la celebración del evento o actividad requiera de instalaciones o materiales no ubicados en el Salón Modelo, el coste de los mismos correrá a cargo de la entidad solicitante.
Bestalde, aretoaren erabilera barne funtzionamenduko erregelamendu baten bitartez arautuko da, eta erregelamendu horretan arautuko dira Modelo Aretoko espazio eta zerbitzuen erabilerarako arauak eta erabiltzaileen betebehar eta ardurak.	Por su parte, el uso de la sala se regulará mediante un reglamento de funcionamiento interno que regulará las normas de uso de los espacios y servicios de la Sala de Modelo y las obligaciones y responsabilidades de las personas usuarias.
2.1. ZINEMA EGITARAUA ETA BESTE PROIEKZIOAK PROGRAMATZEA	**2.1 PROGRAMACIÓN DE CINE Y OTRAS PROYECCIONES**
Lizitatzaileek proposatu behar duten zinema programazioaren ezaugarriak honako hauek izango dira:	Las características de la programación de cine a proponer por los licitadores serán las siguientes:
• Zinema urte osoan programatu eta proiektatuko da, Zarauzko Udalaren kultur programazioa edo beste zenbait ekitaldi egiten direnean izan ezik.	• El cine se programará y proyectará durante todo el año, salvo cuando coincida con la programación cultural del Ayuntamiento de Zarautz u otros eventos.
• Genero guztietako filmak programatuko dira, eta estreinaldiko filmen proiekzioa bermatuko da.	• Se programarán películas de todos los géneros y se garantizará la proyección de películas de estreno.
• Haur zein helduentzako zinema emanaldien zirkuitu komertzialera euskaraz eginda edo euskarara itzulita iristen diren film guztiak	• La concesionaria deberá incluir en la programación todas las películas de cine infantil o de personas adultas que lleguen en euskera o

sartu beharko ditu programazioan emakidadunak Emakidadunak genero ikuspegia kontuan hartuko du programazioa aukeratzerakoan, eta emakumeek zuzendutako zinemaren proiekzioa sustatuko du.		traducidas al euskera al circuito comercial de proyecciones. La concesionaria tendrá en cuenta la perspectiva de género en la elección de la programación y fomentará la proyección de cine dirigida por mujeres.
• Astelehena izango da ikuslearen eguna eta sarrerak ohiko prezioa baino txikiagoa izango du egun horretan.		• El lunes será el día del espectador o de la espectadora y la entrada tendrá un precio inferior al habitual ese día.
• Era berean, zinema jatorrizko bertsioan (VOSE) eta zuzeneko ekitaldiak edo aurrez grabatutakoak (opera, balleta, kontzertuak, kirola eta abar.) sartu ahalko dira programazioan. Horiek guztiek Udaleko Kultura Departamentuaren baimena eduki beharko dute aldez aurretik. Ekitaldi horietarako sarreren prezioak jartzerakoan kontuan hartuko da ekoizle eta banatzaileek adierazitakoa, eta Kultura Departamentuarekin adostu beharko dira prezio horiek.		• Asimismo, se podrán incluir en la programación, cine en versión original (VOSE) y eventos en directo o pregrabados (ópera, ballet, conciertos, deporte, etc.). Todos ellos deberán contar con la autorización previa del Departamento de Cultura del Ayuntamiento. A la hora de fijar los precios de las entradas para estos eventos se tendrá en cuenta lo indicado por las productoras y distribuidoras, precios que deberán ser acordados con el Departamento de Cultura.
• Behar besteko aurrerapenarekin programazio guztiaren berri eman beharko zaio Zarauzko Udaleko Kultura Departamentuari, horren dibulgazioa egin eta Udaleko agendan sartu ahal izateko. Programazio hori ezin izango da aldatu. Kultura Departamentua arduratuko da propaganda agendetan eta udal informazio-guneetan sartzeaz.		• Toda la programación deberá ser comunicada al Departamento de Cultura del Ayuntamiento de Zarautz con la suficiente antelación para su divulgación e inclusión en la agenda municipal. Esta programación no podrá ser modificada. El Departamento de Cultura se encargará de incluir la propaganda en las agendas y puntos de información municipales.
2.2 MODELO ARETOKO ZERBITZU OROKORRAK Emakidadunak honako zerbitzu orokorrak bete beharko ditu Modelo Aretoan:		**2.2 SERVICIOS GENERALES DE LA SALA MODELO** La concesionaria deberá prestar los siguientes servicios generales en la Sala Modelo:
a) Modelo Aretoa eta bere instalazioak ireki eta ixtea, eta egoera onean geratu den eta ezarritako ordutegiak bete diren kontrolatzea.		a) Abrir y cerrar la Sala Modelo y sus instalaciones, controlando el buen estado y cumplimiento de los horarios establecidos.
b) Leihatilan arreta ematea eta zinema eta ikuskizunetarako sarrerak saltzea, bat etorrita indarrean dagoen legediarekin eta		b) La atención en taquilla y la venta de entradas de cine y espectáculos, de acuerdo con la legislación vigente y con las instrucciones sobre precios y

	Kultura Departamentuak zehaztutako prezio eta ordutegiei buruzko jarraibideekin.		horarios que determine el Departamento de Cultura.
c)	Modelo Aretoko erabiltzaileen sarbide-kontrola eramatea. Emanaldia amaitu eta publiko guztia atera arte itxarongo dute ateak ixteko.		c) Llevar el control de acceso de las personas usuarias de la Sala Modelo. Esperarán a que termine la actuación y salga todo el público para cerrar sus puertas.
d)	Ekitaldietara eta ikuskizunetara sartzeko baldintzak betetzen ez dituzten pertsonei sarrera ukatzea (sarrerarik ez, aforoa beteta…).		d) Denegar el acceso a las personas que no reúnan las condiciones de acceso a eventos y espectáculos (no tener entrada, aforo completo...).
e)	Ahal den neurrian erabiltzaileen portaera kontrolatzea indarrean dauden arau guztiak bete ditzaten.		e) Controlar en la medida de lo posible el comportamiento de las personas usuarias para que cumplan todas las normas vigentes.
f)	Larrialdi egoera bat gertatuz gero, 112 zenbakira deitu eta larrialdi irteera guztiak irekitzea jendea atera dadin.		f) En caso de emergencia, llamar al 112 y abrir todas las salidas de emergencia para que salga el público.
g)	Leihatilan eta salmentetan jasotako diruaren likidazioa egitea. Zinema programazioari dagozkion diru sarrerak jasoko ditu emakidadunak; Zarauzko Udalak antolatutako ekitaldien sarrerak, aldiz, zuzenean jasoko ditu Udalak.		g) Hacer la liquidación del dinero recibido en taquilla y ventas. La concesionaria, recibirá los ingresos correspondientes a la programación cinematográfica, mientras que los ingresos de los actos organizados por el Ayuntamiento de Zarautz los recibirá este directamente.
h)	Astero Modelo Aretoan egiten diren ekitaldien leihatilako orriak edo bertaratuen jende kopurua emailez Kultura Departamentuari pasatzea.		h) Facilitar al Departamento de Cultura las hojas de taquilla de los actos semanales que se celebren en la Sala Modelo o el número de asistentes.
i)	Izandako gorabeheren zerrenda bat egitea, eta zerrenda horren berri ahalik eta azkarren ematea Kultura Departamentuari.		i) Elaborar un listado de las incidencias producidas, comunicándolo lo antes posible al Departamento de Cultura.
j)	Programazioak eskatzen dituen zerbitzu osagarri txikiak egitea: prezio eta ordutegien kartelak prestatzea, Modelo Aretoko atean jartzen diren kartelak egunean izatea, ohar eta jakinarazpenak eta abar.		j) Realizar los servicios complementarios menores requeridos por la programación: elaboración de carteles de precios y horarios, mantenimiento al día de los carteles colocados en la puerta de la Sala Modelo, avisos y notificaciones, etc.
k)	Udalak uzten dituen instalazio eta ekipamenduak behar bezala funtzionatzen dutela ziurtatzea eta garbi eta ondo kontserbatuta edukitzea. • Modelo Aretoko sarrera garbi mantentzea. • Aretoaren barrua garbi mantentzea.		k) Asegurar el correcto funcionamiento de las instalaciones y equipamientos cedidos por el Ayuntamiento y mantenerlos limpios y bien conservados. • Mantener limpio el acceso a la Sala Modelo. • Mantener limpio el interior de la sala.

• Erabilera bakoitzaren ondoren espazioen oinarrizko garbiketa egitea. • Erabilera bakoitzaren aurretik komunak behar bezala ekipatuta eta garbi daudela ziurtatzea. • Nolanahi ere, Zarauzko Udalaren ardura izango da Modelo Aretoaren garbiketa orokorra egitea astero. Erabat debekatuta egongo da Aretoaren barruan jakiak eta edariak kontsumitzea.	• Realizar la limpieza básica de los espacios después de cada uso. • Asegurar que los aseos estén debidamente equipados y limpios antes de cada uso. • En todo caso, será responsabilidad del Ayuntamiento de Zarautz la limpieza general semanal de la Sala Modelo. Queda terminantemente prohibido el consumo de alimentos y bebidas en el interior del Salón.
l) Aldez aurretik aipatutako lan guztiak Zarauzko Udaleko Kultura Departamentuarekin koordinatuta burutuko dira.	l) Todos los trabajos anteriores se llevarán a cabo en coordinación con el Departamento de Cultura del Ayuntamiento de Zarautz.
2.3.- MODELO ARETOKO OINARRIZKO ZERBITZU TEKNIKOA Emakidadunak oinarrizko zerbitzu teknikoak egin beharko ditu Modelo Aretoan: a) Jarduerak oinarrizko ekipamendu teknikoa eskatzen duenean emakidaduna arduratuko da jardueraren muntaiaz eta desmuntaiaz, eta jarduerari asistentzia teknikoa egingo dio. b) Zarauzko Udalak eskubidea izango du beste enpresa batzuekin zerbitzu tekniko osagarriak eta bereziak kontratatzeko, baldin eta jarduera behar bezala burutzeko beharrezkoak badira. Oinarrizko zerbitzu teknikoak (proiekzioa, bestelako lan teknikoak) emakidadunak eskaintzen dituen prezioen arabera kobratuko dira.	**2.3 SERVICIO TÉCNICO BÁSICO DE LA SALA MODELO** La concesionaria deberá realizar los servicios técnicos básicos en la Sala Modelo: a) Cuando la actividad requiera equipamiento técnico básico, la concesionaria se encargará del montaje y desmontaje de la actividad, realizando la asistencia técnica a la misma. b) El Ayuntamiento de Zarautz tendrá derecho a contratar con otras empresas servicios técnicos complementarios y especiales necesarios para el normal desarrollo de la actividad. Los servicios técnicos básicos (proyección, otros trabajos técnicos) se cobrarán de acuerdo con los precios ofrecidos por la concesionaria.
3.- ZINEMA PROGRAMAZIOA ETA ORDUTEGIAK Zinema programazioa ostiraletik astelehenera bitartekoa izango da, eta saioen ordutegiak eta programazioa emakidadunaren eta Zarauzko Udaleko Kultura Departamentuaren artean	**3.-PROGRAMACIÓN Y HORARIOS DE CINE** La programación cinematográfica será de viernes a lunes y los horarios y la programación de las sesiones se decidirán entre la concesionaria y el Departamento de Cultura del Ayuntamiento de Zarautz. Si así lo decidiera, el departamento podrá

erabakiko dira. Hala badagokio, departamentuak hilean film bat hautatzeko aukera izango du. Genero guztietako filmak programatuko dira, eta estreinaldiko filmen proiekzioa bermatuko da.		elegir una película al mes. Se programarán películas de todos los géneros y se garantizará la proyección de películas de estreno.
Haur zein helduentzako zinema emanaldien zirkuitu komertzialera euskaraz eginda edo euskarara itzulita iristen diren film guztiak sartu beharko ditu programazioan emakidadunak.		La concesionaria deberá incluir en la programación todas las películas realizadas en euskera o traducidas al euskera, tanto de cine infantil como de persona adulta, que lleguen al circuito comercial.
Programatutako filmek ez dute, inola ere, ideologia edo jarrera sexistak, homofoboak edo indarkeria matxista edo sexista sustatzen duten edukiak izango.		En ningún caso las películas programadas tendrán contenidos con ideologías o actitudes sexistas, homófobas o que promuevan cualuier tipo de violencia machista o sexista.
Astelehena izango da ikuslearen eguna eta sarrerak ohiko prezioa baino txikiagoa izango du egun horretan.		El lunes será el día del espectador o de la espectadora y la entrada tendrá ese día un precio inferior al habitual.
Era berean, hilean bi egun, batez ere astearteak gordeko dira bestelako proiekzio batzuetarako (dokumentalak, zine-kluba, gai jakinen inguruko zikloak, bertsio orijinalak azpitituluekin, etab.).		Asimismo, se reservarán dos días al mes, principalmente martes, para otras proyecciones (documentales, cine-club, ciclos temáticos concretos, versiones originales con subtítulos, etc.)..
Zarauzko Udaleko Kultura Departamentuak onartu beharko ditu kasu bakoitzean **zuzeneko edo aurrez grabatutako ekitaldien programazioa eta ordutegiak.**		El departamento de Cultura del Ayuntamiento de Zarautz deberá aprobar en cada caso la **programación y horarios de los actos en directo o previamente grabados**.
4.-SARREREN SALMENTA		**4.-VENTA DE LAS ENTRADAS**
Emakidaduna arduratuko da zinema saioetarako zein bestelako proiekzioetarako sarrerak saltzeaz. Horretarako, aurretiazko salmenta eta sarrera zenbakitua ahalbidetzen duen sistema informatizatu homologatua eskaini beharko du bere kontura, indarrean dagoen legedian ezarritakoarekin bat etorrita. (CUL/1772/2011 Agindua)		La concesionaria será la encargada de vender las entradas tanto para las sesiones de cine como para otras proyecciones. Para ello, deberá ofrecer por cuenta propia un sistema informatizado homologado que permita la venta anticipada y la entrada numerada, de acuerdo con lo establecido en la legislación vigente. (Orden CUL/1772/2011)
Eskaintzen den sistema informatizatu hau erabiliko da Zarauzko Udalak antolatu edo baimentzen dituen ekitaldietarako sarreren salmentarako, eta Udalak, aldez aurretik eskatuta, programatutako emanaldietarako sarrerak.		Este sistema informatizado que se ofrece se utilizará para la venta de entradas de eventos organizados o autorizados por el Ayuntamiento de Zarautz y, previa solicitud, para entradas de actuaciones programadas por el Ayuntamiento.

5. SARREREN PREZIOAK

Zarauzko Udalak finkatuko ditu zinema-saioen salmenta-prezioak, eta urtero berrikusi ahal izango dira. 2026ko aldiari dagozkionak, berriz, honako hauek izango dira:

Ohiko zinema saioa	5,70€
Haurrentzako zinema saioa	4,40€
Ikuslearen eguna (astelehena)	4,70€
Zinema saioa jatorrizko bertsioan (VOSE)	5,10€
Ekitaldien proiekzioa edo proiekzio berezia	Kasu bakoitzean adostuko da

6. PROIEKZIOKO EKIPOAK, IKUS-ENTZUNEZKOAK ETA ESZENOGRAFIAKOAK

Zarauzko Udalak emakidadunaren esku jarriko ditu Modelo Aretoko makineria eta instalazioak.

7. EMAKIDADUNAK ORDAINDU BEHARREKO GASTUAK

Emakidadunak gastu hauek ordaindu beharko ditu:

- Zinema eta zuzeneko zein aurrez grabatutako ekitaldiak programatzeko zerbitzua emateko beharrezkoak diren langileen gastua.
- Pelikulen horniketak eragindako gastuak.
- Zinema programazioaren egile-eskubideetatik sortutako kanonak.
- Pelikulen garraioak, publizitateak eta promozioak eragindako gastuak.
- Pelikulen emanaldietatik eta sarreren salmentatik sortzen diren zergak.
- Zinematografia-ustiapeneko enpresa izateagatik legeak eskatzen dituen gastu guztiak.

5.- PRECIO DE LAS ENTRADAS

Los precios de venta para las sesiones de cine los fijará el Ayuntamiento de Zarautz, y podrán ser revisados anualmente; los correspondientes al periodo comprendido para el año 2026 serán los siguientes:

Sesión de cine	5,70€
Sesión de cine infantil	4,40€
Día del espectador o espectadora (lunes)	4,70€
Cine en versión original (VOSE)	5,10€
Proyección de eventos o proyección especial	Se acordará en cada caso

6. EQUIPOS DE PROYECCIÓN, AUDIOVISUALES Y ESCENOGRAFÍCOS

El Ayuntamiento de Zarautz pondrá a disposición de la concesionaria la maquinaria e instalaciones de la Sala Modelo.

7. GASTOS A CARGO DE LA CONCESIONARIA

La concesionaria deberá abonar los siguientes gastos:

- Gasto de personal necesario para la prestación del servicio de cine y para la programación de eventos en vivo y pregrabados.
- Gastos de aprovisionamiento de películas.
- Cánones derivados de los derechos de autor de la programación cinematográfica.
- Gastos de transporte, publicidad y promoción de películas.
- Impuestos derivados de la proyección de películas y de la venta de entradas.
- Todos los gastos exigidos por la ley como empresa de explotación cinematográfica.

– Zinema programaziorako eta zuzeneko edo aurrez grabatutako ekitaldien proiekziorako sarreren salmentari dagozkion gastuak.	– Gastos correspondientes a la venta de entradas para la programación de cine y para la proyección de eventos en directo o pregrabados.
– Lokala erabiltzen den bitartean, lokalaren oinarrizko garbiketarako eta lokala txukuntzeko gastuak.	– Gastos de limpieza básica y adecentamiento del local durante la utilización del mismo
– Zarauzko Udalaren programaziotik eratorritako zerbitzu orokorrak eta oinarrizko zerbitzu teknikoak emateko beharrezkoak diren langileen gastua.	– Gasto de personal necesario para la prestación de los servicios generales y técnicos básicos derivados de la programación del Ayuntamiento de Zarauz
8**. EMAKIDADUNAREN BETEBEHARRAK**	**8. OBLIGACIONES DE LA CONCESIONARIA**
Emakidadunak betebehar hauek izango ditu, baldintza teknikoetan eta administratiboetan jarritakoei eta arau osagarriak aplikatzetik eratorritakoei utzi gabe:	Sin perjuicio de lo establecido en las prescripciones técnicas y administrativas y de las derivadas de la aplicación de las normas complementarias, la concesionaria:
• Pelikulak eta zuzeneko edo aurrez grabatutako ekitaldiak ikustera joaten direnek ordaintzen duten sarreraren zenbatekoa jasoko du.	• Cobrará el importe de la entrada que abonan quienes acuden a ver películas y eventos en directo o pregrabados.
• Jarduera arautzen duten legezko xedapenak eta xedapen administratibo eta fiskalak beteko ditu. Besteak beste, jabetza intelektualeko eskubideen kudeaketarako entitateekin eta Kultura Ministerioarekin zerikusia dutenak.	• Deberá cumplir las disposiciones legales, administrativas y fiscales que regulan su actividad. Entre ellas, las relacionadas con entidades de gestión de derechos de propiedad intelectual y con el Ministerio de Cultura.
• Lagatako instalazioak bakar-bakarrik zinea proiektatzeko edo zuzeneko edo aurrez grabatutako ekitaldietarako erabiliko dira.	• Las instalaciones cedidas se destinarán exclusivamente a la proyección de cine o a eventos en vivo o pregrabados.
• Ezingo da obrarik egin, Zarauzko Udaleko Kultura Departamentuari jakinarazi gabe eta bere onespenik izan gabe.	• No se podrán realizar obras sin comunicación y aprobación del Departamento de Cultura del Ayuntamiento de Zarautz.
• Udalak sustapen edo sentsibilizazio kanpainak sortzen baditu, zine saioen aurretik publizitate bideoak botatzeko aukera izango du. Gehienez sei aldiz urtean; hala ere, sortutako iragarkiak 20-30 segundokoak edo gehienez 40-50 segundokoak izango dira. DCP formatuan emango zaizkio emakidadunari.	• Si el Ayuntamiento crea campañas de promoción o sensibilización, podrá lanzar vídeos publicitarios antes de las sesiones de cine. Hasta seis veces al año, si bien los anuncios generados serán de 20-30 segundos o de 40-50 segundos como máximo. Se entregarán a la concesionaria en formato DCP.

• Emakidadunak pelikulen publizitate-kartelak jarri beharko ditu Zarauzko Udaleko Kultura Departamentuak horretarako egokitutako tokietan, eta baita oharrak ere, baldin eta programazioan aldaketaren bat egon bada edo beste zerbait gertatu bada.		• La concesionaria deberá colocar carteles publicitarios de las películas en los lugares habilitados al efecto por el Departamento de Cultura del Ayuntamiento de Zarautz, así como anotaciones en el caso de que se haya producido alguna modificación en la programación o cualquier otra circunstancia.
• Emakidadunak leihatila-zerbitzua eta sarreren salmenta eskainiko du, indarrean dagoen legezko araudiarekin eta Zarauzko Udaleko Kultura Departamentuaren jarraibideekin bat etorrita.		• La concesionaria prestará el servicio de taquilla y venta de entradas, de acuerdo con la normativa legal vigente y las instrucciones del Departamento de Cultura del Ayuntamiento de Zarautz.
• Aforoari dagozkion arauak bete beharko ditu, eta ezingo da aforoa baino sarrera gehiago saldu.		• Cumplirá las normas de aforo, no pudiendo venderse más entradas que el aforo.
• Ebakuazio eta larrialdiko planean ezarritako guztia beteko du. Kontratua gauzatu eta hilabeteko epean aurkeztu beharko du plan hori honetarako: lan-arriskuen prebentzioko oinarrizko arauak aplikatzeko, larrialdi bat antolatzeko, autobabesari buruzko gidaliburua aurkezteko eta Modelo Aretoaren ebakuazio plana aurkezteko.		• Cumplirá con todo lo establecido en el plan de evacuación y emergencia. En el plazo de un mes desde la formalización del contrato deberá presentar dicho plan para: la aplicación de las normas básicas de prevención de riesgos laborales, la organización de una emergencia, la presentación del manual de autoprotección y la presentación del plan de evacuación de la Sala Modelo.
• Pelikuletara joan direnen asistentziari buruzko informazioa aurkeztu behar dio enpresak Zarauzko Udalari hilero, Kultura Departamentuak dagozkion hileroko kudeaketa txostenetan jasotzeko. Horretaz gain, urteko memoria aurkeztu beharko du urtea bukatu eta berehala, beranduenez, hurrengo urteko urtarrilaren 31n.		• La empresa deberá presentar mensualmente al Ayuntamiento de Zarautz la información relativa a la asistencia de las personas asistentes a las películas, a fin de que el Departamento de Cultura la recoja en los correspondientes informes mensuales de gestión. Además, deberá presentar la memoria anual inmediatamente después de finalizar el año, a más tardar el 31 de enero del año siguiente.
Pelikuletara joaten den jende kopuruari buruzko memoria bat aurkeztuko du enpresak. Memoria urtero aurkeztu beharko da, lehen hiruhilekoan, eta aurreko urteko asistentziari buruzko datuak jasoko ditu. Era berean, zine emanaldiko aretoen titularrak izateagatik dituzten betebeharrak beteko dituzte, hau da, ikusleen asistentzia kontrolatu behar dute eta etekinak aitortu, horretan oinarritu burutu daitezen jarduera		La empresa presentará una memoria sobre el número de asistentes a las películas. La memoria deberá presentarse anualmente en el primer trimestre y contendrá los datos de asistencia del año anterior. Asimismo, cumplirán con sus obligaciones como titulares de salas de exhibición cinematográfica, es decir, deberán controlar la asistencia del público y declarar los rendimientos , para que la actividad administrativa, la función

administratiboa, funtzio estatistikoa eta partikularren eskubide legitimoak, jabetza intelektualaren eskubideak kudeatzen dituzten entitateen bitartez edo eskubide horiek eurek erabilita.		estadística y los derechos legítimos de los particulares se lleven a cabo a través de las entidades de gestión de los derechos de propiedad intelectual o en el ejercicio de los mismos.